



**2025EKO URRIAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urriaren hogeita hamarrean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

EH Bilduk mozioa aurkeztu du gai zerrendatik kanpo eta bozkatu ondoren aho batez onartzen da gai tratatzea.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, 2025eko irailaren 25eko eta urriaren 16ko aktarik ez dagoela jakinarazten da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III. GIZARTE ZERBITZUEN, BERDINTASUNAREN ETA ADINEKO PERTSONEN BATZORDEAREN LEHENDAKARITZAREN ALDI BATERAKO ORDEZKARITZAREN BERRI EMATEA.-

Unbe Echaniz Perez zinegotziak, Gizarte Zerbitzuen Berdintasunaren eta Adineko Pertsonen Batzorde Informatzaileko presidenteak, ezin ditu bere eginkizunak aldi baterako bete. Ondorioz, alkateak eskuordetze ebazpen bat sinatu du ezintasun-egoerak irauten duen bitarteko.

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

IV. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 7 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEAREN BERRI EMATEA.-

LAZKAOKO
UDALA

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), urgentziaren arrazoia zein den galdetu du.

Idazkariak, prozesuaren diferentziak azaldu ditu.

Alkateak dio sortutako beharrei garaian erantzuna emateko onartu dela alkatetzaz, osokora eramatea atzerapena suposatuko zuelako.

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonal Gastuak	8.308,22 €
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	100.482,59 €
IV	Transferentzia arruntak	7.243,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		116.033,81 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	116.033,81 €
GUZTIRA		116.033,81 €

V. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 8 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedienteak irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedienteak aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Gaia azaldu eta eztabaidatu ondoren, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutakoen aho bateko adostasunez, honako hau ERABAKI DU:



Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 8 zenbakidun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	175.318,11 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		175.318,11 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	175.318,11 €
GUZTIRA		175.318,11 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2025eko uztailaren 17an hartutako akordio bidez, Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren prozedura irekiz eta lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazio deialdiaren iragarkia kontratatzailearen profilean jarri zen eta 2024ko abuztuaren 5eko OJ/S 151 zenbakidun Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo proposamen bakar hau aurkeztu da:

* GUREAK GARBITASUNA S.L.U.

Aurkeztutako proposamena onartua izan da.

Lortutako puntu guztiak batu ondoren, emaitza ondorengo da:

ENPRESA	Proposamen teknikoa	Proposamen ekonomikoa	Unitate. Prezioak	PUNTUAK
---------	---------------------	-----------------------	-------------------	---------

GUREAK GARBITASUNA S.L.U.	22,89	64,00	6,00	92,89
---------------------------	-------	-------	------	--------------

Hau honela, eta udalarentzat proposamen abantailatsuena izanik, kontratazio mahaiak garbiketa zerbitzuak GUREAK GARBITASUN S.L.U. enpresari esleitzeko proposamena egiten du.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta kontratazio mahaiaren proposamenaren aurrean, aho batez, onartu du.

VII. TAXIEN HIRI-TARIFAK 2026 URTERAKO.-

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak 2026 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Datorren urterako % 2,8ko igoera proposatu du. Goierriko herri guztietarako hiri-tarifa berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udalaren Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera bidali behar da honek onar dezan.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa ere bidali dute.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2026)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
4,3505	1,3620	26,0145	4,3505	2,1722	40,8862

2025erako Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak proposatu dituen hiri-tarifak honako hauek dira:

HIRI - TARIFA (2026)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua	Abiatze saria	Egindako kilometroa	Zain egindako ordua
4,4724	1,4001	26,7429	4,4724	2,2330	42,0310

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da



**** Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.**

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu), aurreko urteetan bezala euskarazko bertsioan hizkuntz akats handiak daude.

Alkateak dio aurrez ere helarazi zitzaiela baina berriro ere eskatuko zaiela.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 1.- 2026 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako proposatu diren hiri-tarifak onartzea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatutako dokumentazio aurkeztea, egin beharreko izapideak egin ditzan.

VIII. OSAKIDETZAREN ESKAERA, LAZKOAKO EUSKADI ENPARANTZA SEKO (IKASTOLA PATIOA) OSASUN-ZENTRORAKO BEHIN-BEHINEKO ERAIKIN BAT INSTALATZEKO OBRAK INTERES BEREZIKO OBRATZAT HARTZEKO, ERAIKUNTZA INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN (EIOZ) % 95EKO HOBARIA APLIKATZEARI DAGOKIENEZ.-

Alkateak azalpenak ematen ditu.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

- Osakidetzari eraikuntza instalazio eta obren gaineko zergan (EIOZ) % 95eko hobaria aplikatzea.

IX. ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak, 2025-10-14an egindako bileran proposaten dute Etxeko laguntza zerbitzua urte betez luzatzea.

Hau guztia kontuan izanda, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

- Urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

X. EAJ-PNV ETA EH BILDUREN ADIERAZPENA, AZAROAK 25EKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESGERRAAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA.-



Naldaiz (EAJ-PNV) eta Ormazabal (EH Bildu) zinegotzien artean, adierazpenean jasotako konpromisoak irakurri dituzte:

"AZAROAK 25eko ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Indarkeria Matxista Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, gogora ekarri nahi dugu indarkeria matxistak beldurrazko eta lotsazko ingurunea sortzen duela, indarkeria jasaten dutenak bakartzeko eta isilarazteko joera du, eta biktimgileen zigorgabetasun-sentsazioa areagotzen du. Izan ere, sarerik ez izateagatik eta komunitatean sustraituta ez egoteagatik, egoera horiek areagotu egiten dira isolatuago egon daitezkeen emakumeen artean, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatuetan daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume atzerritarrak eta bestelako baldintza bereizleak dituztenak.

KOMUNITATEAK beste pertsona batzuekin konektatzen gaitu, eta babes-loturak garatzea eta narratiba komunak sortzea ahalbidetzen du. Horregatik, komunitateak emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezake, eta berdintasunean oinarritutako harreman-inguruneak sortu, diskriminazioaren eta indarkeriaren adierazpenek tokirik izan gabe. Auzokide, lagun edo kuadrillen arteko harreman estuak goiz ohartaraz dezake indarkeria-egoera gertatzen ari dela.

Komunitate feministak, hurbiltasunetik eta sororitateetik, indarkeria jasaten ari diren emakumeak gorputzez babes ditzake, baita enpatia adierazi eta gertuko bide-laguntza ere eskaini. Halaber, jasandako indarkeria matxistari aurre egiten eta onera etortzen lagun dezake, eta egoera horietan bere erritmoak eta erabakiak errespetatu ditzake.

Tokiko komunitateak biktimen erreparazioa babes dezake. Horretarako, eragindako kaltea aitortu eta indarkeria matxista salatu dezake, eta publikoki biktimarekiko eta haren ingurukoekiko elkartasuna eta gaitzespena adierazi.

Udalok erantzukizun zuzena dugu, komunitateak sustatzeko non auzotarrak, taldeak eta koadrilak indarkeria matxistaren aurrean erne egongo diren, eta indarkeria matxista pairatzen dutenak hartu, integratu eta babestuko duen bizitza komunitarioa bultzatzeko. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako komunitate erreparatzaileak sustatzeko erantzukizuna dugu.

Horregatik, Lazkaoko Udalak honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartu du:

Jarduketa posibleak:

- Hurbiltasun-sare lokalak indartzea: topaguneak, komunitate-jarduerak eta tokiko elkarteen bizitasuna zaindu, pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaurgarrienak konektatzeko.
- Kanpötik iristen diren pertsonentzako harrera- eta integrazio-programak garatzea, tokiko komunitatearekin lotzea ahalbidetzeko, bereziki emakume eta nesken arreta jarritz.
- Hezkuntza-, osasun-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan laguntza-sareak sustatzea, zerbitzu publikoak taldeekin, elkarteekin eta berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan elkarri laguntzeko ekimenekin konektatzeko.



- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista hutsaltzen edo legitimatzen duten diskurtsoak eta jarrerak desaktibatze, bereziki konplizitate matxisten inguruetan.
- Indarkeria matxistako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzea, indarkeria gaitzesteko eta biktimekiko elkartasuna adierazteko.
- Kanpaina eta kuadrillekin aliantzak garatzea sexuen arteko harreman osasungarri eta bidezko kodeak sortzeko, dibertsitate osoan, kode matxistak eta misoginoak hausteko.
- Tokiko emakumeen mugimenduei eta mugimendu feministari laguntzea eta haiekin koordinatzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak haien borrokan babesa emateko jarduerak garatzeko.
- Udalak, hartutako konpromezuen betetze mailaren berri emango du Berdintasun Batzordean

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, gure herrian antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko"

Ormazabal zinegotziak (EH Bldu) dio azken puntuan jarri nahi dutela azpimarra.

Hau ikusirik, Osoko Bilkurak aho batez oarntu du adierazpena.

XI. EAJ-PNVren ADIERAZPENA, ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOAREN DEFENTSAN.-

Naldaiz zinegotziak (EAJ-PNV) irakurri du:

"ADIERAZPENA:ELKARBIZITZAREN ALDE ETA ERTZAINZA ETA UDALTZAINGOEN DEFENTSAN

Herritarren arteko elkarbizitza eta segurtasuna dira gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabe. Ertzaintza eta udaltzaingoak, Euskal Polizia Kidego guztiak, funtsezko elementu dira herritarren segurtasuna eta legeen betepena bermatzeko. Euskal herrikide ditugun aldetik, babesten duten Herriatik hurbil egiten dute beren lana, mendebaldeko gizarteetako estandar demokratikoak betez. Erakundeei dagokie Ertzaintzak zein udaltzaingoek gure gizartean egunero egiten duten lana babestea eta balioestea.

Hala ere, azken asteotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldeetan, udaltzaingoen eta Ertzaintzaren kontrako eraso larriak eta seinalamenduak egin dira, soilik beren lana egin dutelako. Polizien bulego eta tokiak erasotzera eta euskal polizien lana eragoztera iritsi dira.



Halaber, seinalamendu eta mehatxu larriak egin dira hiritarrek aukeratuta gobernuan lan egiten duten ordezkari publikoen kontra. Iraganeko garaiak gogora ekartzen dizkiguten jarduera eta jarrerak dira horiek. Erakunde guztiek eta ordezkari publikoek ekintza hauek guztiak salatu eta gaitzetsi behar dituzte, sekula babestu gabe, berriro gerta ez daitezen.

Hori dela eta Lazkaoko Udalak, errespetuan oinarritutako kultura demokratikoa eta elkarbizitzaren printzipioak betez, ondorengoak proposatzen ditu;

- 1) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako erasoak, seinalamenduak eta jokaera bortitzak gaitzestea.
- 2) Ertzaintzak eta udaltzaingoei hiritargoa babesteko egiten duten ezinbesteko lana aitortzea, eta egiten duten lana erabat babestea.
- 3) Ertzaintzaren, udaltzaingoen eta ordezkari publikoen kontrako jokaera bortitzak eta mehatxuak bertan behera eskatzeko deia egitea, errespetuan oinarritutako elkarbizitza bermatzeko.
- 4) Ertzaintza euskal autogobernuaren adierazgarri eta polizia hurbil eta demokratikoaren eredu dela adieraztea."

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ezezkoa aldebakartasunez egindako proposamena delako. Elkarbizitzari aportazio eskasa egiten dio horrek.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 aurkako (EH Bildu) eta abstentziorik gabe, onartzen da.

XII. EH BILDUREN MOZIOA URGENTZIZ SARTUTAKOA DEMOKRAZIAREN ALDEKO ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKOA.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) irakurri du:

"DEMOKRAZIAREN ALDEKO ETA POLIZIA-EREDUA BERRIKUSTEAREN ALDEKO MOZIOA

Azken, asteotan, Euskal Herriko hainbat tokitan, erakunde eta ordezkari publiko bätzuen aurkako gertaera eta adierazpenak izan dira. Adierazpena horiek askatasunaren eta espazio publikoaren errespetuaren muga onargarriak gainditu dituzte. Udal hau ez datgo bat jarduteko modu horiekin, eta uste du modu egokian baztertu behar direla, axolagabekeria eta gehiegizko jardun interesatua saihestuz.

Illo horretan, Udal honek gaitzetsi egiten du gertakari horien erabilera politikoa, kritika sozial eta politiko osoa kriminalizatzeko, bai eta bidezko protesta ere. Logika bat inposatu nahi da, non eraso onartezintzat interpretatzen den automatikoki indar



polizialekiko edo horiek zuzentzen dituztenekiko ezinegon edo zalantza adierazpen oro, eta hori printzipio demokratikoen aurkakoa da.

Ez da bizikidetzaren aurkako erasoa polizia-kidegoen jarduera kritikatzeari, haien funtzionamendu-eredua zaintzan jartzea edo abusu-gertakariak salatzea. Bizikidetzaren aurka egiten duena da desadostasuna adierazteko espazio oro ixtea: erakundeak kritikaren aurrean blindatzea eta erakundeak gaitzestearen balioa hutsaltzea.

Gertakari horiek neurri gabe dimentsionatzeak dakar herritarren bizi-kalitateari eragiten dioten sakoneko eztabaidak isilaraztea: Osakidetzaren endekatzea, etxebizitza-larrialdia, zaintza-krisia edo desproporzionatutzat jotako polizia-interbentzioekiko kezka sozial gero eta handiagoa.

Arkauteko Akademiako zuzendariak, bere taldearekin batera, dimisioa eman berri du, barne-erresistentziekin talka egin ondoren. Horrek erakusten du sistemak egiturazko berrikusketa beha duela.

Horregatik guztiagatik, Lazkaoko udaleko osoko bilkurak, honako hau ADOSTEN DU:

- Erakundeekiko errespetuaren edo adierazpen-askatasunaren bidezko erabileraren mugak gainditzen dituen jarduera oro gaitzestea.*
- Kritika politiko eta sozial legitimoa eta herritarren protesta kriminalizatzeko, izaera horretako gertaera puntualak erabiltzeko saiakera erabat baztertua.*
- Berrestea kritikarako eskubidea, baita polizia-indarrekiko ere, edozein demokrazia osasungarriren muinaren parte dela, eta ezin dela murriztu edo deslegitimatu.*
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea polizi-eredua sakon berrikusteko hausnarketa eta herri prozesua abiatu dezala, gardentasuna, kontrol demokratikoa, proportzionaltasuna eta zerbitzu publikoa bermatzeko.*
- Indar politiko guztiei dei egitea eztabia instituzionala herritarrei eragiten dioten egiturazko arazoetan zentratzera, hala nola, osasun publikoa, etxebizitza, zainketak, lan-eskubideak eta polizia-eredua."*

Alkateak, esaten du elkarbizitzak oinarritzko arauak dituela eta horiek errespetatzea guztioi dagokigu, bestela ez dago elkarbizitzarik. Ertzaintza, egoera askoren aurrean bere lana burutu beharra dauka seguratasuna bermatzeko.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak aurkako 7 botorekin (EAJ-PNV), 6 aldeko (EH Bildu) eta abstentziorik gabe, ez da onartzen.

XIII. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtzen dut.



The image shows a handwritten signature in blue ink, followed by an official stamp. The stamp features a shield emblem with a cross and the text "AYUNTAMIENTO DE LEIZOLA" below it. A second, more stylized handwritten signature is written over the stamp.